



Eskola Kirola – 2019-2020ko lehiaketa araudia

TAEKWONDOA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO TAEKWONDO FEDERAZIOAREN ESKUMENA DA ESKOLA JARDUNALDIAK EGITEA, BAI ETA LURRALDE HISTORIKO HONETAN EGITEKOA DEN EDOZEIN JARDUERA BAIMENTZEA ERE

Bai teknikan bai borrokan eskola adineko haur guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten, diziplinak honela egokituko dira:

BORROKA:

Eskola kirolari dagozkion kategorien barruan, kirolariak adina, pisua, altuera eta graduaren arabera taldekatuko dira:

- PISUA: antzeko pisua izango dute denek, 2 edo 3 kg gorabehera.
- ALTUERA: antzeko altuera izango dute denek, 5 cm gorabehera.
- GRADUA: kirolariek izena eman ondoren, Batzorde Teknikoak erabakiko du nola egin taldeak.

BORROKARAKO ARAUDIA:

- Espainiako Taekwondo Federazioaren araudia ezarriko da, salbuespen batekin: KADETE kategorian bakarrik jo ahal izango da kaskoan, baldin bi lehiakideak eta entrenatzaileak ados badaude.
- Gainerako kategorietan ezin izango da kaskoan jo.

Arbitraje batzordeak hautatuko ditu jardunaldi bakoitzerako arbitroak.

Batzorde Teknikoak, jardunaldi egunean bertan, ausaz aukeratuko ditu (beharrezko irizten badio) egoki jotzen dituen parte hartzaileak, eta pisatu egingo ditu jardunaldia hasi aurretik. Baldin pisu hori ez badator bat eskola jardunaldian izena ematean adierazitako pisuarekin (200 gramoko tartea utziko da), parte hartzaile horien kluba baztertu edo jardunalditik deskalifikatu egingo da.

Izen-emateak eginda egon behar dira ESKOLA JARDUNALDIA egin baino astebete lehenago. Ez da epez kanpoko izen-ematerik onartuko.

Batzorde Teknikoak erabakiko du zein hurrek ordezkatu duten Araba lurraldean, autonomia erkidegoan edo estatuan egingo diren topaketetan.



TEKNIKA (POOMSAEA, ERAKUSTALDIA ETA FREESTYLEA):

Kirolariak eskola kiroleko kategorien arabera taldekatuko dira.

Izen-emateak eginda egon behar dira ESKOLA JARDUNALDIA egin baino astebete lehenago. Ez da epez kanpoko izen-ematerik onartuko.

Behin izen-emateak eginda, Batzorde Teknikoak aztertuko du ea kategoriak mantentzea edo bateratzea komeni den, parte-hartzaile kopuruaren arabera.

Batzorde Teknikoak erabakiko du zein haurrek ordezkatzeko duten Araba lurraldean, autonomia erkidegoan edo estatuan egingo diren topaketetan.

ESKOLA JARDUNALDIETAN parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa izango da:

- Kluba eta kirolariak eskola kirolean izena emanda egotea.
- Kirolariek eskola kiroleko txartela edukitzea.
- Kirolarien gradu txartela edukitzea.
- Klubak federazioak ezarritako betekizun guztiak beteta izatea: klubaren afiliazioa, entrenatzailearen lizentzia eta abar.

EZINBESTEKO BALDINTZA IZANGO DA SEXU IZAERAKO DELITUEN ZIURTAGIRIA AURKEZTEA, ADINGABEKOEKIN HARREMANAK DITUZTEN KLUB BAKOITZEKO KIDE GUZTIENTZAT, BORONDATEZKOAK NAHIZ PROFESIONALAK DIRELA.